

Interes orokorreko antolamenduak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2018ko ekainaren 9tik ekainaren 15era bitarteko astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

2018/06/11 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko maiatzaren 29koa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, 2018rako saltoki handien sektorearen hitzarmen kolektiboko soldata-osagarri aldakor eta ez-kontsolidagarriaren gehikuntzari buruzko Akordioaren Akta erregistratzen eta argitaratzen duena. **7814 xedapena - 2 or.**
- 2018ko maiatzaren 29ko Ebazpena, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, kirol-instalazioen eta gimnasioen Estatuko IV. hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **7816 xedapena - 36 or.**

2018/06/12/06 Estatuko Aldizkari Ofiziala

- Ebazpena, 2018ko ekainaren 1ekoa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, publizitate-enpresen sektoreko hitzarmen kolektiboko 2018ko soldaten arloko Akordia erregistratzen eta argitaratzen duena. **7892 xedapena - 2 or.**
- Ebazpena, 2018ko ekainaren 1ekoa, Enplegu Zuzendaritza Nagusiarena, esnearen eta esnekien industrietarako Estatuko hitzarmen kolektiboa erregistratzen eta argitaratzen duena. **7894 xedapena - 31 or.**

II.- ANTOLAMENDU ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2018/06/09

- **LURRALDE POLITIKAKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA.** - Antolaketa. - 359/2018 Errege Dekretua, ekainaren 8koa, ministerio-sailetan idazkariordetzak sortzen dituenak. **7705 xedapena - 2 or.**
- **EKONOMIA ETA ENPRESA MINISTERIOA.** - Finantza-neurriak. Ebazpena, 2018ko ekainaren 8koa, Altxorren Idazkaritza Nagusiarena, 2018ko ekainaren 5ekoaren akatsak zuzentzen dituenak, Altxorren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenean sartutako 1. eranskina eguneratzen duena, autonomia-erkidegoen eta tokiko erakundeen zorpetze-operazio eta eratorriei aplikagarria zaien finantza-zuhurtasunaren printzipioa definitzen duena. **7706 xedapena - 2 or.**

2018/06/11

- **JUSTIZIA MINISTERIOA. - Merkataritza Erregistroa. Urteko kontuen ereduak.** - Akatsen zuzenketa, martxoaren 21eko JUS/319/2018 Aginduarena, zeinaren bidez onartzen baitira eredu berriak Merkataritza Erregistroan urteko kontuak aurkezteko, argitaratzera behartuta dauden subjektuei dagozkienak. **7771 xedapena - 1 or.**
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Administrazio-prozedurak. Kudeaketa informatizatua.** - Ebazpena, 2018ko maiatzaren 30ekoa, Autonomiako eta Tokiko Finantzazioaren Idazkaritza Nagusiarena, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko abenduaren 19ko 20/1990 Legeak ezarritako Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergen kuoten zerga-onuretatik eratorritako tokiko erakundeen diru-bilketaren galerengatiko konpentsazioak bide telematikoz eskatzeko eta kudeatzeko sistema gaitzen duena. **7772 xedapena - 2 or.**

2018/06/12

- **ESTATUAREN BURUZAGITZA. - Ebazpen penalak.** - 3/2018 Legea, ekainaren 11koa, zeinaren bidez Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzen baita, Ikertzeko Europako Agindua arautzeko. **7831 xedapena - 46 or.**
- **ESTATUAREN BURUZAGITZA. - Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsa.** - 4/2018 Legea, ekainaren 11koa, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Kontsumitzaileak eta Erabiltzaileak defendatzeko Lege Orokorraren testu bategina eta beste lege osagarri batzuk aldatzen dituenak. **7832 xedapena - 2 or.**
- **ESTATUAREN BURUZAGITZA. - Prozedura zibila.** - 5/2018 Legea, ekainaren 11koa, Prozedura Zibilar buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea aldatzen duena, etxebizitzaren lege kanpoko okupazioari dagokionez. **7833 xedapena - 5 or.**
- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Enkante judizialak eta notarialak. Kudeaketa informatizatua.** - Ebazpena, 2018ko ekainaren 4koa, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Zuzendaritza Nagusiak eta Altxorren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak batera emandakoa, ondasunak besterentzeko prozeduretan Estatuko Buletin Ofizialaren Agentziaren Enkanteen Atarian bide telematikoz parte hartzeko prozedura eta baldintzak ezartzen dituen 2016ko urriaren 13ko Ebazpena aldatzen duena. **7835 xedapena - 6 or.**
- **LURRALDE POLITIKAKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. - Antolaketa.** - Ministerio-sailetan idazkariordetzak sortzen dituen ekainaren 8ko 359/2018 Errege Dekretuaren akatsen zuzenketa. **7836 xedapena - 1 or.**

- **TRANTSIZIO EKOLOGIKORAKO MINISTERIOA. - Energia elektrikoa.** - TEC/625/2018 Agindua, ekainaren 11koa, zeinaren bidez Energiaren Estatu Idazkaritzaren eskumena hartzen baita eta zeinaren bidez aldatzen baita Energiaren Estatu Idazkaritzaren 2018ko maiatzaren 9ko Ebazpena, energia elektrikoaren produkzioaren eguneroko eta egun bereko merkatuen funtzionamendu-arauak onartzen dituen. **7837 xedapena - 2 or.**

2018/06/14

- **LEHENDAKARITZAKO ETA LURRALDE-ADMINISTRAZIOETARAKO MINISTERIOA. - Aireko zirkulazioa.** - Akatsen zuzenketa, Urrutiko kontrol bidez pilotatutako aireontzien erabilera zibila arautzen duen abenduaren 15eko 1036/2017 Errege Dekretuarena, zeinak ekainaren 27ko 552/2014 Errege Dekretua aldatzen baitu, aireko nabigazio-zerbitzuetarako eta -prozeduretarako airearen eta xedapen operatibo orokorren Erregelamendua garatzen duena eta Aireko Zirkulazioko Erregelamendua onartzeari buruzko urtarilaren 18ko 57/2002 Errege Dekretua aldatzen duena. **7962 xedapena - 1 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2018/06/12

- **EUSKO LEGEBILTZARRA.** - EBAZPENA, 2018ko maiatzaren 29koa, Eusko Legebiltzarraren Mahaiarena, Administrazio elektronikoari buruzko arauaren inguruan. **3022 xedapena - 13 or.**

2018/06/13

- **LEHENDAKARITZA.** - 1/2018 LEGEA, ekainaren 7koa, Kiroleko Dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea aldatzekoa. **3051 xedapena - 11 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2018/06/11

- **INGURUMENEO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA.** - 18/2018 Foru Dekretua, maiatzaren 29koa, Klima Aldaketaren Kontra Borrokatzeko Gipuzkoako Estrategia 2050 - Gipuzkoa Klima 2050 onartzen duena. **4025 xedapena - 42 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala



15/2018 Zk

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO